

5. KANALAK

Bi banaketa-kanal mota izango ditugu, alde batetik, kanpoko-kanala eta gure kanal propioa.

Kanal propioa:

Guk geuk, gure lan-taldearen bitartez kudeatutako salmentak dira. Kasu honen barruan bi aukera izango ditugu:

Denda fisikoa: gure produktua modu presentzian eta zerbitzu pertsonalizatuago batekin eskuratzeko aukera. Bertan lan egiten duten langileak produktuari buruzko informazio gehiago emango die berezoei haien zalantzak argitzeko. Denda zure esku ez badago, gure web orriaren bidez eskaintzen dugun laguntza hau eskuratu ahal izango duzu. Gure denda fisikoa Gaisteizen dago, Florida kalean. Ordutegi zabala izango du, goizeko 9:00 etan irekiko dugu 14:30 ak arte. Arratsaldean, aldiz, 16:00 etan irekiko dugu 20:00 ak arte. Gurekin kontaktuan jartzeko baita gure telefonora deitu dezakezue:

Online denda: gure web-a www.helpclothes.es deitzen dena. Bertan produktua online eskuratzeko aukera dago, betiere, bezeroaren erregistro egin ondoren..

Kanpoko kanala:

Kanpoko banaketa-kanalak hainbat pertsonen eta erakundek osatzen dituzte, produktua fabrikatzailetik ekoizlearengana eramateko: bitartekariak. Osasun arloko erakundeek gure produktua banatzeko aukera izango dute.

Komunikazio kanalei dagokionez, osasun zentro eta psikologia zentroekin kontaktuan jarriko gara. Beraiek izango dira gure produktuaren berri emateko erreferenteak, Izan ere, euren pazienteei eskaini ahal diete gure zerbitzua. Zentro hauekin kontaktuan jarritz, errazago hel gaitzke arazo hau duten pertsonengana.

Baita, gaur egun oso erabilgarria den tresna bat erabiliko dugu ere. Sare sozialak. Hainbat sare sozialetan (Instagram, Twitter, Facebook) gure profila sortuko dugu. Bertan bezeroak gurekin kontaktuan jarri daiteke. Sareak erabiliko genituzke gure produktua sustatzeko. Kanal hauei esker, iragarkiak jarri ditzakegu interneten gure produktua promozionatzeko eta jende gehiagorengan heltzeko.

Azkenik, web gunea izango dugu bezeroarekin komunikazioa bermatzeko.

